



HEZITZAILE GIDA

LEHEN HEZKUNTZA | 1. MAILA

Ezagutu Hondarribia Lehen Hezkuntzako unitate didaktikoen bilduma honen helburua, hain zuzen ere izenburuan agertzen dena da; alegia, Hondarribiko ondare kulturalaren transmisioan ekarpen txoa egitea, belaunaldien arteko etenik egon ez dadin..

Askok pentsa dezakete funtzio hau familian eta ingurune hurbilean betetzekoa dela, baina ez dugu ahaztu behar, jendartea biziberritzen doala, eta honekin batera aldatzen. Azken 75 urtean, hazten joan da Hondarribiko populazioa etengabe: 6.362 biztanle zituen 1940. Urtean eta 17.181 aldiz 2015ean. Gaur egun Hondarribian bizi diren haur eta nerabeen gurasoak jaio ziren urteetan gertatu zen hazkunderik handiena. Populazioaren bilakaerari egiten badiogu kasu, aitona-amona izateko adinean dauden biztanle gehienak, herritik kanpo jaio dira. Beraz, baliteke haur eta gazte horiek, herriko ondare kulturalaren transmisioa etxean jaso ez izana.

Hau ikastetxearen lana dela, pentsa dezakete bestetzuk, baina kontutan izanda ikastetxea gizarteratzeko bigarren erakundea dela (lehena familia baita), eta dagoeneko curriculum diseinuetan alor honetan finkatzen diren estandarrak Euskal Autonomi Erkidego osorako finkatuta egon, nahiz eta hainbat ikastetxeetan, zenbait irakaslek beren kasa, aparteko ahalegina eginaz, esparru hau jorratzen saiatu, beren erantzukizuna ez denez, ez dago sistematizaturik, eta ez da bermatzen ikasle ororengana heltzen denik. Baliteke beraz, haur eta gazte horiek, herriko ondare kulturalaren transmisioa ikastetxean jaso ez izana.

Jakina, herriaren lana da eta! Esan dezake inork. Baina... Nor da herria?, ez al gara guztiok? Eta, ez al da askotan gertatzen **guztiona** den hori, **inorena ez** dela, errealitatean gertatzea?

Gero eta globalizatuagoa dagoen gure mundu honetan, maiz, urrun dugunaren gaineko informazio ugari jasotzen dugu eta gertukoa aldiz, etxekoa, ez dugu ezagutu ere egiten. Ezagutzen ez duguna, jasotzen ez dugun bitartean, existituko ez balitz bezalakoa da, eta ingurune hurbileko herritar kultur identitate nagusi horretan, hutsune handia jasan dezakegu. Nola baloratu ezagutzen ez duguna? Nola maitatu? Nola inplikatu? Nola biziberritu? Nola ezagutzera eman? Nola atxikimendua izan? Nola norberarena sentitu?

Gero eta ozenago entzuten dugu **herri hezitzailearen** ideia. Ez da berria, baina bai gaurkotasun handikoa. Eta gaurkotasun horretan oso lagungarria izan da Francesco Tonucci psikologia ikerlari italiarra. Ezaguna da, besteak beste, Fano herrian (Italian), udalarekin batera **Haurren Hiria** egitasmoa martxan jarri zuelako¹. Hark esana da: *Historia ikasgaia, umearen familiaren historia da, eta geografia, umearen auzoaren geografia.*

Testuinguru honetan, hurbileko ezagutzak erabiliz, norbere herriarekiko interesa eta motibazioa piztea interesgarria izateaz gainera, beharrezkoa dela irizten diogu, uste baitugu honela indartzen dela herritarren komunitate/talde sentimendua.

Ustezko hutsune honetan ekarpen txoa egiteko asmotan sortu genuen egitasmo hau, bai ikastetxean, bai etxean, bai kalean landu ahal izateko. Herria hobeto ezagutzeko, herrira gerturatzeko, herria gozatzeko, herria maitatzeko. Herria sentituz eta maitatuz, herri kohesioa eta herritartasuna garatzea da egitasmoaren azken helburua, xedea; izan zirelako baikara, eta garelako izango baitira.

Bildumak, 6 unitate didaktiko biltzen ditu, bat lehen hezkuntzako ikasmaila bakoitzeko, eta irakasle/

¹ Tonucci, F. (2013): Haurren Hiria. Txatxilipurdi.

hezitzailearentzako gidaliburu bana. Honako hau dugu lehena. Kronologiaren ardatza jarraituko dugu; hau da munduren sorreratik gaur egunera arte, eta bertan bildu nahi genuke herri mailako ondarea.

Irakaslearen gidaliburuan, unitate didaktikoan agertzen diren eduki/jardueraz gainera, beste hainbat biltzen ditugu, bai osatzeko, egoki iruditu ezker, edo ordezkatzeko,.... Asmoa, materiala malgutasunez erabili ahal izatea da, ikastetxeak/ irakasleak/ hezitzaileak egokien deritzon arabera. Estekak eta bibliografia ere bertan biltzen dugu.

Lehen unitate hau maiuskulaz idatzi dugu, erraztearren, ikasmaita honetan ari baitira lantzen irakurketa/idazketa eta oraindik askok ez dute seguruenik ondo menderatuko irakurtzea.

Bildumako adiskide ditugu erraldoi eta buruhandien konpartsako pertsonaiak, haurrentzako ezagunak eta erakargarriak direla pentsatzen dugulako eta gainera, herriaren bilakaerarekin lotura dutelako; honela, hiru erraldoi bikote ditugu: portuarrak diren Meltxora eta Muxarra; baserritarrak diren Frantxiska eta Txantxano eta kaletarrak diren Anttonbordo eta Kaxiana. Izenak, bere garaian bizi izan ziren hondarribiarrenak dira. Eta bidelagun gisara aukeratu dugu Martxela balea, horizontala den erraldoi bakarra. Umeez oso maitea dute eta beraren bitartez egitea sarrera egokia iruditu zaigu, haien erakargarria izango delakoan.

BIDELAGUNAREN AURKEZPENA

Martxela balea izango dugu unitate osoan bidelaguna. Liburuxkaren 2. orrialdean Martxelak bere burua aurkeztuko du. Nondik datorren azaldu eta nolakoa den kontatuko digu.

Jarduera 1: Martxelaren ipuina asmatu, ikasgela bakoitzak berea. Ikastetxeen artean partekatu. Adin bereko ikasleen arteko elkartrukea sustatu.

Jarduera 2: Martxela ezagutu ondoren, irakasleak ere gauza bera egingo du eta ondoren hurrek banan banan nondik datozen, nolakoak diren kontatuko dute. Zer gustatzen zaie? Zer ez zaie gustatzen?

HAURRAREN IZENA

Liburuxka bere egin dezan haurrak, bere izena jartzeko lekua izango du. Nahi izanez gero, marrazki edo elementuren bat egin dezakete izenaren ondoan.

NOLAKOA DA HONDARRIBIA? DAKIGUNA AZTERTZEN

Zer dakigu Hondarribiari buruz? Koadernoko 5. orrialdean Hondarribiko argazki batzuk ikus daitezke. Gai al gara leku hauek non dauden esateko?

Martxelaren laguntzarekin, denon artean, hiria deskribatzen saiatuko gara: nolakoa da Hondarribia? Txikia, handia, polita, itsusia, hondartzarik ba al du? baserririk? piratik? fabrikarik? gaztelurik? zenbat eliza daude? zenbat hizkuntza entzuten ditugu kalean? nolakoa da eguraldia? parkerik ba al dago hirian? Trena pasatzen al da Hondarribitik? eta autobusa? etab.

Koadernoaren 7. orrialdean zenbait esaldi azaltzen dira. Hurrek egia direnak markatu behar dituzte.

Jarduera 1: ikasgelaren izaeraz jabetuko gara lehenengo: denak Hondarribian bizi al gara? Non bizi naiz (zein kale? zein auzo?...). Gure gurasoak nongoak dira? Aiton-amonak?

Jarduera 2: ikasleen jatorriarekin mapa osatu. Munduan kokatu gure jatorria. Honekin lantzen duguna, espazioan, mapan kokatzea da batetik eta aniztasuna bestetik.

Jarduera 3: bakoitzak hiriaren marrazki bat egingo du. Ondoren, ikaskideen aurrean marraztutakoa azalduko dugu. Era honetan, besteen aurrean azalpenak emateko gaitasuna garatzen joango gara.

Jarduera 4: etxean eta gure inguruan ikertuko dugu informazio bila (guraso, anai-arreba, lehengusu, aiton-amon, bizilagun). Mota guztiko informazioa interesatzen zaigu. Ondoren ikasgelan, bildutakotik bakoitzak nahi duena kontatu dezake. Nahikoa da esaldi bat. Irakasleak informazioa bilduko du (adibidez arbelean idatzi) eta ondoren, denon artean bildutakoa aztertuko dugu.

Jarduera 5: aurreko jardueran bildu ditugun esaldiekin, Hondarribiko esaldien murala sortuko dugu.

Jarduera 6: denon artean ipuin bat asma dezakegu Hondarribiari buruz edo eraikin bati buruz (gaztelua, itsasargia,...). Haurrek beraien hiriarekiko dituzten erreferentzietatik abiatuta fantasia lantzeko aprobeztatuko dugu. Sortutako ipuina ere grabatu daiteke (bakoitzak esaldi bat adibidez). Gelan bertan edo beste gela baten aurrean antzez dezakegu.

Jarduera 7: ipuinaren grabazioa ikastetxeko webgunean jartzeko eskatu diezaiokegu webgunea kudeatzen duen arduradunari. Honela gure lana beste ikaskide, lagun eta familiakoei erakutsi ahal izango diegu. Hau egiteko modu egokiena erabakiko dugu: eskutitz bat idatzi? E-maila? Zuzenean arduradunarengana joaz? Honela, proiektu bat bideratzeko ze pausu eman behar diren ikasiko dugu.

Jarduera 9: ikastetxean irratirik baldin badago, ipuinaren grabaketa bertan partekatzeko eskatu daiteke aurreko jardueraren bide berdina eginaz (irradi arduradunarekin hitz egin eskaera egiteko, etab.).

IKT jarduera: ipuinaren testua “Google docs” programaren bidez editatzen ikasi eta partekatuko dugu.

ZER GEHIAGO JAKIN NAHI DUT?

Jarduera 1: taldetan banatu eta hiriari buruz zer jakin nahi dugun eztabaidatu dezakegu. Edozein gauza izan daiteke. Ondoren denon artean hitz egin daiteke. Galdera sorta iradoki, puntu zehatzak (zirikatu): nolakoa zen Hondarribia? Beti horrelakoa izan al da? Nire etxea lehen ere toki berean al zegoen? Zer ote zegoen lehen nire etxea dagoen tokian? Hondartza beti hor egon al da? Eta portua orain dagoen tokian egon al da beti? Alde zaharrean dauden harrizko horma handi horiek zer dira? Noiztik dago gaztelua hor? Faraa...

HONDARRIBIARI EGINIKO KANTUA

Hondarribia, hain hiri polita izanik, abeslari batek amodiozko kantu bat eskaini zion: “Maite ederra” kantua, Mikel Garikoitzena. (7. orrialdea)

Jarduera 1: kantua aztertuko dugu. Lehenengo, kantuak dioena ulertuko dugu. Horretarako elkarrekin irakurriko dugu: nori buruz ari da? Maiteari buruz? Zein da maitea? Kasu honetan ez da pertsona bat baizik eta hiri bat: Hondarribia. Zer esan nahi dute hiru koloreek? Niretzat ere ederra al da Hondarribia? Maite al dut?

Jarduera 2: kantua ikasiko dugu. Kantuaren esaldiak errepikatu, musikarik gabe. Ondoren esaldiak musikarekin batera errepikatuko ditugu. Bukatzeko elkarrekin abestuko dugu.

Jarduera 3: kantuarekin jolasean: irakasleak/ikasleak hitz bat hautatuko du eta abesterakoan, hori agertzen den aldiro, txalo joko dugu (adibidez “maite”).

Jarduera 4: kantuarekin jolasean: testua deseraiki eta berreraikiko dugu. Esaldiak paperean idatzi eta guraizez moztuko ditugu. Mahai gainean guztiak jarri eta nahastuko ditugu eta ondoren, bere lekuan jartzen saiatuko gara.

Jarduera 5: kantua grabatu eta ikastetxeko webgunean zintzilikatu eta/edo ikastetxeko ekitaldietan abestuko dugu.

Jarduera 6: karaoke bat antolatu dezakegu ikasgelan.

Gauza bera egin dezakegu hautatzen dugun beste edozein abestirekin.

Material osagarria:

“Maite ederra” kantuaren letra eta doinua: <https://www.youtube.com/watch?v=3YFiA9nYt3k>

NOLA SORTU ZEN LURRA?

Lurra duela 4.600 milioi urte inguru sortu zen.

Hasiera batean, Euskal Herria urpean zegoen, itsasoak estaltzen zuen dena. Poliki-poliki eta lur mugimenduen ondorioz, lurra urpetik sortzen joan zen. Lur azpian dauden indar handiek harri geruzak tolestu, eta gure mendiak sortu zituzten. Gaur egungo gure mendi tontorrak, garai batean urez inguratutako uharteak izan ziren.

Hondarribia ere urpean zegoen. Euskal Herriko arrokarik zaharrenak Ursuia mendigunekoak dira, Lapurdin. Baina oso gertu ditugu Euskal Herriko lur zaharrenetakoak direnak; Aiako Harritik Bianditzera doazen lur eremuaz ari gara. Horrez gain, Aiako Harriak, Euskal Herriko eraketa granitiko bakarra osatzen du.

Jaizkibel mendia ere oso antzinakoa da, 40 milioi urte inguru ditu eta haren historia arroketan idatzia dago. Koadernoko 8. eta 9. orrialdeetan Jaizkibel mendiaren marrazkia ikusi dezakegu.

Jarduera1: lurak nola tolestu eta azaleratu ziren hitz egin dezakegu ikasgelan. Nola sortu da Aiako Harria? eta Jaizkibel?

Euskal Herriko lurak noiz eta nola sortu ziren oso ongi azalduko digute Luberri Ikasgune geologikoan, Oiartzunen. Antolatzen dituzten ikastetxeentzako bisitak eta tailerrak oso gomendagarriak

dira. Bertan Aiako Harria eta Jaizkibelen jatorriari buruz hitz egingo digute: <http://www.luberri.org/eu/>

JAIZKIBEL, GURE BABESA

Jaizkibel mendia Bidasoa ibaiaren itsaslabarrean kokaturik dago eta Hondarribiari babesa ematen dio. Euskal kostaldeko Flyscharen itsaslabarrak, mundu mailako erreferentzia geologikoa dira eta honen baitan kokatzen da Jaizkibel formazioa deritzona (Hondarribitik Zumaiara).

BA AL ZENEKIEN...

Jaizkibel izena nondik datorren? Juan San Martinek, beste zenbaiten artean azaltzen digu "Aizkibel"-etik datorrela, hau da, haitz-gibela edo haitzaren atzealdea. Itsasora begira dagoen hegialak emango lioke beraz izena mendiari. Baina nor zen Juan San Martin? Koadernoko 10. orrialdeak kontatuko digu bere berri.

Ugaria eta aberatsa da Jaizkibelen dagoen natur ondarea. Gizakiaren historia ere irakur daiteke, agertu diren hainbat aztarnategien laguntzarekin.

Jaizkibelgo hareharria hainbat eraikuntza egiteko erabili izan da. Hondarribian bertan, gaztelua, harresia eta parrokia ditugu adibide, baina inguruko herrietan ere aurkituko dugu Jaizkibelen sorturiko hareharria, hala nola, Pasai Donibane eta San Pedro, Lezo, Irun, Oiartzun, Errenteria, Donibane Lohizune eta Baionan.

BIZITZAREN SORRERA

Lurraren sorrera aztertu dugu. Baina noiz sortu zen bizitza lurrian?

Bizitza itsasoan sortu zen. Lehen bizidunen berri, fosilek ematen digute, baina, zer dira fosilak? Fosilak aspal diko animalia edo landareen aztarnak dira, harri bihurturik. Ezagutzen ditugun fosil zaharrenak, duela 4,5 bilioi urtekoak dira.

Jarduera 1: norbaitek etxean fosilak edo fosilen argazkiak baldin baditu ekartzeko proposatu dezakegu eta nahi izanez gero, haiekin bilduma osatu. Ikasgelan, fosilak nola sortzen ote diren hitz egin dezakegu (nola imajinatzen dugu?)

Jarduera 2: zeintzuk izan ote ziren lehen bizidunak? Ea denon artean zer bururatzen zaigun.

BA AL ZENEKIEN...

Jaizkibelgo iparraldeko isurialdean dauden harpe eta babesek sortzen dituzten guneez hezeetako giro epel eta iluna dutela gustuko, goroldioa eta iratzeek? Hantxe aurkituko ditugu oraindik ere, galtzeko arriskuan dauden Europako iratze espezie oso berezi batzuk. Bere izenak ahoskatzeko zailak dira. Saiatuko al gara? *Vandenboschia speciosa*, *Hymenophyllum tunbridgense* eta *Woodwardia radicans*. (11. orrialdea)

Hainbat landare mota ere aurkituko ditugu bertan, Azeri-buztana esate baterako. Itxura bereziko garoa da eta ugari aurkitu daiteke. Aski duzue itsasargitik abiatzen den Talaia bidea hartzea eta bide ertzean errez topatuko dituzue. (Azeri-buztanaren argazkia jarri koadernoan).

Batzuetan metro bateko altuera izatera irits daitezke. Milioika urteko historia duen landare familiakoa da. Unitate honetan ezagutzen ari garen azeri-buztana, ez da aldatu antzinatek hona; gure arbasoen ere, gaur guk ikusten duzun bezala ezagutu zuten. Azeri-buztana historiaurrekoa dela esan dezakegu. Hainbat erabilera ditu. Adibide pare bat aipatzearen, lur ongarri modura erabil daiteke, uraz betetako ontzi handi batean sartu eta hiru egunez utzi ondoren, ur horrekin ureztatzen badugu. Zorriak kentzeko ere erabil daiteke. Infusioan hartuta, gure barrenak garbitzen laguntzen digu eta pixa eragilea da.

AZERI-BUZTAN URA ZORRIEN AURKA

Zorriak al dabilta ikastetxean? Uxatzeko modu ona izan daiteke 150 gramo landare lehor hartu eta hamabost litro uretan ordubetez egosteara.

Jarduera: ea azeri-buztana ikasgelara ekartzerik badugun. Ondo aztertu koadernoko landarearen argazkia eta egin dezagun ikerketa-lan bat: etxerako bidean, edo jolasten dugun parkean. edo bururatzen zaigun tokian, begiratu ea azeri-buztana ikusten dugun. Aurkitzen ez badugu, agian, Jaizkibelera edo Jaizubiko paduretara joan beharko dugu.

PARAMOUDRAK

Jaizkibelen, egitura bitxia duten harri batzuk aurkituko ditugu. Izena bera ere, nahiko bitxia da: **paramoudrak**. Itxura biribildua dute. Jaizkibelen, munduko paramoudra kontzentrazio handiena daukagu (12. orrialdea)

Material osagarria:

Paramoudren bisita birtuala:

<https://www.360cities.net/image/img-349810-1#237.90,28.50,96.8>

Paramoudrak ezagutu nahi izanez gero ibilbide proposamen bat:

<https://www.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=15883044>

Flyschari buruz gehiago jakin nahi badugu:

<http://geoparkea.com/eu/>

Jaizkibelgo altxorren inguruan gehiago jakin nahi badugu:

<http://www.jaizkibelamaharri.org/sp-home/objetivos/?lang=EU>

BIZIDUNAK

Ezagutzen ditugun bizidun zaharrenei buruz hitz egiterakoan, dinosauroak aipatzea gerta liteke, oso gai erakargarria izan ohi baita haurrentzat.

Dinosauroak bizi izan ziren garaian, EHko lurak itsas azpian zeuden eta kostaldea, Errioxa inguruan zegoen. Hori dela eta, han aurkitzen dira dinosauroen aztarnategiak. Baina dinosauroen azken garaian, Euskal Herrian ere bizi izan zirela adierazten diguten aztarnak aurkitu dira Araban (Tربیڻو eta Izki aldean).

Dinosauroak duela 65 milioi urte desagertu ziren lurrera erori zen meteorito baten leherketaren ondorioz, lurreko zein itsasoko beste hamaika izakiren modura.

Material osagarria:

Euskal Herrian bizi izan ziren dinosauroen berri gehiago jakin nahi izanez gero: http://www.aranzadi.eus/wp-content/files_mf/1304951100201104NORAdinosaurioak.pdf

LEHEN GIZAKIA. PALEOLITOA

Lurraren historiarekin konparatuta, gizakiaren historia oso laburra da. Duela 8.300 urte aurkitu zen Hondarribian, Txotxipin, ehortzitako pertsona baten hezurra, Euskal Herri osoko giza-ehorzketazaharrena.

Halako aztarna zaharrak aurkitzea ez da Euskal Herriko leku askotan gertatzen. Beraz, Hondarribian gizakia aspalditik bizi dela esan dezakegu, izan ere, historiaurreko ia aro guztietako aztarnak aurkitu dira bertan, gehienak goi paleolito amaiera, mesolitoa eta neolito hasiera garaikoak izanik.

Baina nola bizi ote zen lehen gizaki hura? Koadernoko 14., 15., 16. eta 17. orrialdeetan lantzen dugu.

Lehen gizakia ibiltaria zen, nomada, eta ehizaren arabera mugitzen zen.

Jarduera 1: zer esan nahi du gizakia “ibiltaria” zela esaten dugunean? Gure egungo bizimodua ere ibiltaria al da? Taldean bizi al gara?

Bizilekua: garai hartako euskal gizakia, atari zabalean eraikitako behin-behineko kanpaleku txikietan bizi ohi zen, erreketatik gertu. Etxola sinpleak ziren, adarrekin eraikiak eta gainean larruzko estaldura batekin babestuak. Hastapenean, oso gizatalde txikiak zirenez, 5-7 lagun

inguru, hiruzpalau etxolatan biltzen ziren eta erdian sua egoten zen. Pixkanaka gizataldeak handituz joan ziren eta 15-20 laguneko taldeak osatzera iritsi ziren.

Aldi hotzenetan, kobazuloak erabiliko zituzten. Euskal Herrian kareharrizko mendigune asko dago eta kobazulo ugari aurkitu dezakegu bertan. Jaizkibelen ordea, hareharria da nagusi eta kobazuloak baino, babeslekuak erabili zituzten bizileku modura.

Jarduera 1: ikasgelan ezagutzen ditugun kobazuloei buruz ariko gara: ezagutzen al dute kobazuloren baten izenik? Egon al dira kobazuloren batean? Non? Zer gogoratzen dute?

Jarduera 2: ezagutzen ditugun kobazuloak, mapa batean koka ditzakegu.

Jarduera 3: kobazuloetako bisitaldiak direla eta gogoratzen dugunaren zerrenda bat egin dezakegu.

Jarduera 4: mendiko irteera bat egingo dugu. Bertan adarrak bildu eta etxetik ekarritako izara edo tela zati zaharrekin etxola bat egiten saiatuko gara, antzinakoak bezala.

Jantzia: Ehizatutako animalien larruarekin eta landare zuntzekin (belarrak, hostoak, zuhaitz azalak, lastoak) egiten zituzten jantziak. Hasiera batean larruarekin eginiko jantzi hauek, josi gabekoak ziren eta zatiak korapiloen bidez elkartzen zituzten. Ez dago, une horretan, oinetakoak erabiltzen zituztenaren zantzurik. Denborarekin, tendoiak/zuntzak edo animalien ileak hasiko dira erabiltzen eta aurrerago, jostorratza asmatzearekin batera, jantziak

josten hasi ziren eta botoi simple batzuk egiten. Une jakin batetik aurrera, oinetan, seguruenik, abarken antzeko zerbaite erabiltzen hasi ziren.

Jarduera: gure arbasoak bezala jantziko gara. Larrua lortzea zaila denez, etxetik izara edo tela zati zaharrak ekartzeko eska diezaiekegu, larruak izango balira bezala moztu, korapiloekin lotu eta jantziko ditugu.

Animaliak eta landareak: garai hotzetan, zuhaitz gutxi zeuden eta belar altua eta horia zen nagusi. Animalien artean, errinozero ileduna, mamuta, elurretako erbia eta antzekoak bizi ziren. Une epeletako animalia eta landareak, egungoaren antzekoak ziren: haritzak, hurritzak, urkiak, zaldiak, basurdeak, oreinak, basakatuak, hienak,.... Euskal Herrian eta Europan oso ugariak izan ziren leize-hartzak eta leize-lehoiak.

Ekonomia: hasiera batean fruituak, hostoak, sustraiak eta azalak biltzea zuten bizimodu. Honetaz gainera, animalia txikiak ehizatzen zituzten; hala nola, untxiak, erbiak eta antzerakoak. Une horretan, oraindik, ehiza ez zuten oso ondo menperatzen, ez ziren oso trebeak, eta horregatik, seguruenik, haratusteljaleak ere baziren. Aurrerago bisonteak, zaldiak, oreinak eta uroak ehizatzen ehizatzen hasi ziren. Hala ere, ehiza, espezializatu gabea zen, eta neguan, gosea pasatzen zuten. Denborarekin, ehiza espezializatzen joan ziren, eta bai bilketa, zein arrantza eta ehiza bera ere, planifikatu egingo dituzte eta jada ez dute goserik pasako. Paleolitoaren azken garai honetan etxekotu zuten txakurra.

Tresnen lanketa: tresna gehienak zurezkoak ziren hasiera batean. Harriarekin

egindako tresnak, hasiera batean, handiak eta gutxi landutakoak ziren. Garaian aurrera egin ahala, teknika berriak garatu zituzten bai harria zein hezurak lantzeko eta lanabes ugari eta finak sortu zituzten: orratzak, gezi-puntak, arpoiak, zulagailuak, hazkagailuak...

Aztarnategiak: Euskal Herrian paleolito garaiko hainbat aztarnategi dago. Arrasaten adibidez, Leze-txiki kobazuloa dugu aipagarri; izan ere, han aurkitu ziren Euskal Herrian ezagutzen diren giza-aztarna zaharrenak.

Guregandik gertu, beste aztarnategi garrantzitsu bat daukagu, Aizpitarte-ko kobazuloa, Erreterian. Bost leizek osatzen duten kobazulo multzo honetan, garai hartako hainbat aztarna aurkitu dira. Hondarribian, garai hartako Higer-2 izeneko aztarnategia daukagu, Jaizkibelen, Higer lurmuturretik nahiko hurbil. Bertan suharriarekin eginiko bifaz-a dugu; alegia, bi aldeetan landutako historiaurreko harrizko tresna. Honetaz gainera, bi hazkagailu-ren aztarnak ere aurkitu dira. Jaizkibelen suharri asko dago.

Material osagarria: *Aizpitarteko lagunak* elkarteak, historiaurreko hainbat tailer antolatzen ditu. Honako estekan, informazio gehiago aurkituko dugu honen inguruan: <https://sites.google.com/site/aitzbitartekolagunak/>

Artea eta ehorzketak: aroaren erdialdera, garrantzi handia hartu zuten hobiratzeak, labar arteak eta baita euskarri higikorreko arteak ere. Isturitzen agertutako txirula batek ere, musika egiten zutenaren zantzua adierazten du. Aro honen bukaerakoak dira Euskal Herriko lehen hobiratzeak. Honek adieraziko liguke modu bateko edo besteko sinesmen-erlijioa zutena. Elikagaiak eta tresnak alboan zituztela lurperatu ohi zituzten hildakoak eta zenbait errituetan, beren gorputza margotzeko ohitura zuten. Hondarribian, ez da gaurdaino, garai

hartako adierazpen artistikoen ebidentziarik aurkitu; bai ordea inguruko zenbait tokitan: Oiartzungo Torre-n, Aizpitarte-n eta Isturitze-n. Hondarribitik ez oso urrun, aurkitu da labar-arterik, edo haitzuloetako hormatan egindako pintura eta grabatuak; hala nola, Aiako Altxerri-n, Debako Ekain-en edo Isturitze-n. Marrazten zituzten irudikapenen artean, zaldiak, bisonteak, oreinak, basahuntz piriniarrak, uroak, elur oreinak, sarrionak eta zenbait haragijale eta arrain ere aurkitu dituzte. Bestelako irudikapenak ere egiten zituzten: lerro zuzenak, erronboak, obaloak... Urriagoak dira giza irudiak. Objektuak ere lantzen zituzten artistikoki (hezurrak, adarrak...).

Zaila da esatea garai hartako gizakiak irudikapen hauek zergatik egiten zituen. Batzuen iritziz, ehizarekin edo emankortasunarekin zerikusia dute. Etenik gabe egiten dira aurkikuntza berriak; oraindik ere, berriak azal daitezke, beraz.

Pentsa dezagun:

ikasgelan eztabaidatu dezakegu zertarako iruditzen zaigun egiten zituztela hormetako irudikapen horiek.

Jarduera: Galdetu hurrei, ea kobazuloren batean egon ote diren. Zerrenda egin. Bakoitzak ikusi duena aipa dezake. Ondoren, nahi izanez gero, mapa batean txerta daitezke.

SUA

Lehen gizaki honek, sua menderatzen zuen jada. Suharri eta pirita elkarren aurka jotzerakoan sortutakoa txinpartak eraginda, seguruenik. Suaren aurkikuntzak berebiziko garrantzia izan zuen garai hartako gizakiaren bizitzan. Bai hotzetik zein animalia arriskutsuengandik babesteko erabiltzen zuten eta beraien bizitza erosoagoa bihurtu zuen (19. orrialdea)

Jarduera 1: aztertu dezagun suaren inguruan zer dakigun. Haurren ezagutza eta irudimena erabiliz, garai hartako gizakiak sua nola egiten zuen imajinatzen saiatuko gara.

Jarduera 2: sua irudikatzen duen marrazkia egin dezakegu, material ezberdinak erabilia: tenperak, margoak, collage-a, koloretako paperak,...

Jarduera 3: Material osagarri gisara dugun lamina margotu dezakegu.

Material osagarria:

Historiaurrean sua nola egiten zuten ikusi dezakegu honako esteka hauetan:

<https://www.youtube.com/watch?v=uytHzEWNfSg>

<https://www.youtube.com/watch?v=tnGyOj1Hlrw>

<https://www.youtube.com/watch?v=Rb77XcdpyWA>

MESOLITOA

Klima leunduz joan ahala, paisaia aldatu zen eta kosta lerroa egungo egoerara hurbildu. Kobazulo eta babeslekuetatik irteten hasiko dira eta gizakia, ehiztaria izaten jarraitzen bazuen ere, itsasertzeko baliabideak gehiago ustiatzen hasiko da bere elikaduraren osagarri modura (lapak, karrakelak, ostrak, almejak).

Jaizkibelgo iparraldeko isurialdea bizileku egokia bilakatu zen garai hartan. Fosil hondartzetatik sortutako lautada txikiak eta harkaitz azpiko aterpeak, ugari dira bertan: Lexanabar eta Txotxipi esate baterako. Juan San Martinek aztertu zituen aterpe horiek. Arrizabalaga eta Iriarte arkeologoek ondoren eginiko indusketetan antzeman zituzten 2003an, lehenengo hondarribiarraren aztarnak.

LEHENENGO HONDARRIBIARRA?

8.300 urte ditu orain arte ezagutzen dugun lehen hondarribiarrak. Esan bezala, Jaizkibelen aurkitu zituzten bere aztarnak, Txotxipin hain zuzen ere. Han kokatutako maskortegi batean aurkitu zuten eta nahiz eta giza-aztarna zaharragoak aurkitu diren Arrasateko Lezetxiki-n, hauxe dugu orain arte ezagutzen den **Euskal Herriko giza ehorzketa zaharrena**, beraz, ezagutzen dugun lehen hileta errito euskaldun baten froga, Hondarribian aurkitutakoa da.

Hilobiraketa hau burutzeko, pilatutako maskorren multzoan (maskortegian) zulatu zuten hobia eta bertan sartu zuten, pakete txiki baten gisara lotuta, gizonaren gorpua.

Ez zen oso altua, metro t'erdi neurtzen zuen gutxi gora behera eta 30-40 urte izango zituen hobiratu zutenean. Ziurrenik arrantzan ibili ohi zen; izan ere, garai hartan, arrantza garrantzitsu bilakatzen hasi zen.

Kostatik 2 kmtaraino urrundu ohi ziren arrantzarako. Horretarako, txalupa

modura, enbor hustuak erabiltzen zituzten, inpermeabilizatutako larruekin estaliak. Oso egitura sinplea zuten. Adibide garaikide batzuk aurkitu dira Palestinan, Libanon, Eskozian, Suitzan eta Korean. Arrantzarako tresna modura, amuak eta arrankaziak erabiltzen zituzten, hezurrez, adarrez eta zurez eginikoak. Sareak ere erabiltzen zituzten.

NEOLITOA

Gizakiaren historian une garrantzitsua izan zen neolitoa. Abeltzaintza eta nekazaritza sortzen diren garaia dugu. Gizakia, ehiztaria eta fruitu biltzaile izatetik, ekoizle izatera pasako da. Lurra landatzen hasiko da eta animalia basatiak ekoizpenerako tresna bihurtuko ditu. Nekazaritzaz eta abeltzaintzaz ari gara, jakina.

20. eta 21. orrialdeetan Frantxiska eta Txantxano, Hondarribiko konpartsako erraldoiak baserriarrak aurkezten zaizkigu.

Entzun dezagun...

Ezagutzen al duzu Hondarribiko baserriak? Gregorio Berrotaran zena, Landa Garapeneko udal zinegotzia izan zen urtetan Hondarribiko Udaletxean. Artzu baserrian hazi eta hezitakoa, ederki asko ezagutzen zituen baserriko eta arrantza munduko bizitza. Esteka honetan entzun dezakegu Artzu baserriaz eta beste hainbat gaiei buruz hizketan:

<https://ahotsak.eus/hondarribia/hizlariak/gregorio-berrotaran-etxeberria>

Neolitoan, nekazaritza eta abeltzaintza sortzeaz gainera, gizakiaren jarduera guztiek izan zuten aurrerakuntza handia

eta aldaketa sakona. Gizakiaren historiako une garrantzitsu eta emankor honi, iraultza neolitikoa deritzo.

Bestelako teknologia berriak ere agertu ziren garai honetan: harri landua eta zeramika.

Bizilekua: gehienbat harpeak eta atari zabaleko kanpamenduetan bizi ziren garaiaren hasieran. Kanpamenduak eraikitzeke buztina eta pezoa erabili ohi ziren. Aurrerago, lehenengo herrixka finkoak sortuko dira, erreketatik gertu. Etxeetako hormetarako egurrezko egiturak erabiltzen hasi ziren.

Jantzia: larrua nagusitasuna galtzen joan zen. Landare zuntzak erabiltzen zituzten jantziak egiteko eta lihozko lehenengo ehunak ere egiten hasiko dira. Garaia aurrera joan ahala, artilea erabiliko dute. Ondoren, jantziak apaintzen hasi ziren. Horretarako lehengaiak, urrunetik ekartzen zituzten; esate baterako, Mediterraneo itsasoko maskorrak, harri bereziak, etab.

Animaliak eta landareak: klima eta paisaia oraingoaren antzekoak zirenez, egun ezagutzen ditugun animalia eta landareak bizi ziren. Garai honetan Euskal Herrian, ardi, ahuntz eta behi haziendak sortu ziren. Ondorengoak ditugu txerri haziendak. Gizakiaren eragina ingurunean dagoeneko nabarmena da.

Ekonomia: ekonomia, harrataria izatetik, ekoizpen ekonomia bilakatuko da. Goldea asmatzeak, eta Europa ekialdetik ekartzeak, eragin handia izan zuen, ikaragarritzko abantaila zelako lurrari buelta emateko.

Garapen teknikoa eta tresnen lanketa: alde batetik zeramika eta bestetik harria lantzeko teknikak garatuko zituzten. Erabilitako lehen metala, urrea izan. Hastapenean baina, mailukadaka lantzen zuten. Aurrerago lehen metalgintza garatu

eta kobrea urtzen hasi ziren. Igiteiak egiten ere hasi ziren, baina Euskal Herrian aurkitutako aztarnen arabera, garai honetakoak, harrizkoak ziren; beranduago hazi ziren metalezkoak egiten.

Artea eta ehorzketak: aro honetan, megalitoen eraikuntza da nabarmendu beharrekoa. Megalitoa, harri handiekin eginiko egitura da. Bereiziki trikuharriak aipatu behar ditugu garai honetan. Hauek hileta monumentu gisa eraiki ziren eta talde ehorzketak egiteko erabiltzen zituzten.

Trikuharrietan, 10-20 lagunaren arrastoak aurkitu izan dira. Hildakoen gorpuen ondoan zeramikak, armak, apaingarriak eta elikagaien aztarnak aurkitu izan dira. Leku argitsuetan kokatu ohi ziren; mendi tontor edo muinoetan, artzainen bide ertzetan. Hildakoak, trikuharri eta tumuluetan ehorzteaz gain, haitzulo eta harpe txikietan ere ehorzten zituzten. Zenbaitetan, harpeetako leku ezkutuetan bilatzen zituzten horretarako. Hondarrribian aurkitu ditzakegun trikuharriak, Jaizkibelen daude eta mendiko trikuharri txikiak dira, tumuluen tamainakoak.

Jaizkibelen, hainbat megalitoen arrastoak ditugu ikusgai oraindik ere, nahiz eta lurrak erdi erantsiak izan.

Pentsa dezagun:

Haurrekin eztabaidatzeko: non eta nola ehorzten ditugu gaur egun gure hildakoak?

Material osagarria: honako esteka honetan, trikuharriak nola eraikitzen ziren ikusi ahal izango dugu: <https://www.youtube.com/watch?v=uiYOaLFSEjY>

JAIZKIBELGO MEGALITOAK

Jaizkibelgo trikuharriak, neolito eta brontze aroan bizi izan ziren gizakiak utzi dizkigun altxorak dira (22. eta 23. orrialdeak).

Tamalez, mendeak pasa ahala, denetarik jasan behar izan dute: bai naturaren higadura bera, zein bisitarien etorrerak eragindakoa. Ondorioz, ez daude oso egoera onean.

Jaizkibelen bost trikuharri aurkitu dira eta nahiko gertu daude elkarrengandik: Atxiñar, Iskulin, Jaizkibel III, Jaizkibel IV eta Santa Barbara. Hondarribitik gertu, trikuharri ugari daude Errenteriako, Oiartzungo, Sarako, Azkaineko eta Urruñako mendietan.

Aurrerago, Brontze aroan harrespil edo kromletx-ak erabiliko dituzte haien hildakoak ehorzteko. Kromletxak bertikalki jarritako harriz osatutako biribilak dira.

Haien erdian ehorzten zituzten hildakoen errautsak, erdian; batzuetan, zeramika baten barruan, bestetan lurrean eginiko zulo batean edo harlauza txikiz egindako zista edo trikuharri-kutxa batean ere. Jaizkibelen bi kromletx ikusi ditzakegu egun: Jaizkibel II eta Jaizkibel V.

Esteka honen laguntzarekin, bidai birtual ederra egin ahal izango duzu Jaizkibelen ditugun megalitoetan barrena:

http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-oiartzun/eu/contenidos/informacion/bb_jaizkibel/eu_bisita/vuelo_jaizkibel.html

Aranzadi Zientzia Elkarteko, Gipuzkoako monumentu megalitikoaren eta aztarnategien bilatzailea ere, lagungarria gerta dakizuke, Jaizkibelgo trikuharri eta kromletxak kokatzeko. Hara:

http://www.aranzadi.eus/carta-megalitica-resultados?terminobusqueda&estacion%5B0%5D=Jaizkibel&tipo%5B0%5D=0&se-cuencia%5B0%5D=T_2&comarca%5B0%5D=M_36&terminomunicipal=Hondarribia&searchsubmit&lang=eu

IBILBIDE PEDAGOGIKOA:

JAIZKIBELGO MEGALITOEN BILA

Ibilbidea egin baino lehen, Aranzadik garaturiko “**Megalito**” izeneko APP edo telefono **aplikazioa** deskargatzea komenigarria da. Doakoa eta erabilerraza da. Kontutan izan beharra daukagu egun, megalitoak ikustea, zaila izaten dela batzuetan, denboraren poderioz oso desitxuratuta edo eraldatuta baitaude. Errez pasa gaitezke haien ondotik konturatu ere egin gabe. APP honen laguntzarekin aldiz, berehala topatuko ditugu, GPS bat bailitzan gidatuko baikaitu. Iparrorratza eramatea ere beharrezkoa da, ibilbidean zehar puntu kardinalen jokoa proposatuko baitugu. Egun, telefono askok, berez dakarte iparrorratza barneratuta.

GPS-AREKIN MEGALITOEN BILA

Esteka honetan Aranzadik eginiko Gipuzkoako megalitoen bilatzaile kartografikoaren telefono aplikazioa doan deskargatu ahal izango duzu. Kokalekuez gainera, bidean topatuko dituzuen trikuharri eta harrespil bakoitzaren fitxa tekniko ere kontsultatu ahal izango dugu app honi esker.

Jaizkibelen gure telefonoak kobertura arazoak izan baditzaie ere, aplikazioak ondo funtzionatzen du ibilbidea dagoen eremuan:

Android sistemarako:

<https://play.google.com/store/apps/details?id=eu.aking.megalitoak>

IOS sistemarako:

<https://itunes.apple.com/us/app/megalitoak/id966161992?mt=8>

Baliteke bidean animaliekin topo egitea, eta haiei erreparatzeko balia dezakegu aukera: ea zenbat animalia mota ikusten ditugun. Zorte pixka batekin, agian, pottokaren bat ere antzemango dugu. Eta beharbada, paisaiari ez dagokion elementu arraroren batzuk, bainerak esate baterako. Zertarako erabiltzen ote zituzten bainerak?

Abiapuntua, Jaizkibel mendian dadoen antzinako Paradorea izango da. Autobusean ala autoz hurbildu gaitezke hara. Bertatik abiatuta, oso gertu ditugu ikusi nahi ditugun trikuharri eta kromletxak.

Ibilbideari hasiera emateko, aurrez aurre daukagun begiratokira hurbilduko gara. Han, bertan daukagun mahaiko marrazkian, Aiako Harria bila dezaten eskatuko diegu haurrei. Kokatu ondoren, unitate hasieran ikusitakoa edukia ekarriko dugu gogora; hau da, Aiako Harriko inguruko arroak direla Euskal Herriko zaharrenetakoak. Bide batez, mahaiko marrazkiak bertan agertzen zaizkigun mendien izenak irakurri eta zeintzuk ezagutzen dituzten galdetu diezaiekegu haurrei. Mahaian bertan, unitatean landutako trikuharri eta harrespilei buruzko aipamena dago eta baita hurrengo unitatean landuko dugun erromatarren garaiari buruz ere. Bisitaldi honetan ikusiko ditugun megalito guztiak, oraindik indusi gabe daude.

Ibilbidea jarraitzeko, begiratokitik eskuinera abiatuko gara, Jaizkibelgo tontorrerako norabidea hartuta, antenak daudenerantz. Hemendik aurrera

“Megalito” APP-a erabiltzeko aukera dugu. Paradoretik 350 m-tara, hego mendebalderantz abiatuko gara bidexka jarraituz. Iskuln trikuharriaren bila abiatu gara. Bidean, **Santa Barbara II** izeneko tumulua pasako dugu. Nahi izanez gero bilatu dezakegu, baina Euskal Gobernuak jarri ohi duen mugarria falta du une honetan, eta ez da erraza kokatzea. Lehenengo malda igotakoan, ur biltegi bat ikusiko dugu eskuinaldean (paradorearen ur biltegia izan zena). Bidexka zuzen jarraituko dugu eta 60 m-tara, eskuinaldean, harrizko mugarri batek, trikuharriaren kokapena erakutsiko digu, Iskuln izeneko zelaigunean. Han bilatu beharko dugu izen bereko trikuharria.

Iskuln trikuharria

1935.ean atzeman zuen Joxe Miguel Barandiaranek. Gaur egun ikusiko dugun gauza bakarra, 9 m diametroko eta 1m-ko altuera duen tumulu bat da. Erdian krater bat dauka eta harri batzuk ikus daitezke. Bertako hareharriarekin egina dago. Itsasoarekiko, 430 m-ko altueran kokatua dago. Neolito-Brontze aroko jotzen da. Barandiaranek aurkitu zuenean, hobeto kontserbatua zegoen, baina urteen buruan, ehiza postu modura erabili izanak, hondatu, eta egun, egoera txarrean egotea eragin du.

Argi ikusiko dugu garai hartako gizakiek lekua apropos hautatu zutela beren hildakoak ehorzteko monumentua eraikitzeko. Jaizkibelgo mendi lerroan kokatua dago, leku argitsuan, bide ertzean. Alde batera Aiako Harria dugu eta bestera, itsaso zabala.

Altuen kokaturik dugun trikuharria denez, ikuspegi zoragarria aprobeztatu dezakegu puntu kardinalak lantzeko dantza baten bitartez.

Puntu kardinalen dantza

Bideo honetan 4 puntu kardinalen dantza errez bat erakusten da. Mugimendu hauek

erabilita, edo asmatu dezakegun beste edozein mugimenduen bitartez, 4 puntu kardinalak markatzea da. Mugimendua puntu kardinalaren aipamena edo oihuarekin lagundu dezakegu: IPARRA! HEGOA! EKIA! MENDEA!

<https://www.youtube.com/watch?v=nJhTAdaozTE>

Ondoren, puntu kardinal bakoitza kokatua dugunez, puntu bakoitzean zer daukagun behatu dezakegu: Iparrean itsasoa, hegoaldean Irun, etab.

Dantza hau beste monumentuetan ere errepikatu dezakegu nahi izanez gero. Ibilbideari berrekingo diogu, Paradorea zegoen begiratokira jaitsiko gara. Handik abiatuko gara; oraingo honetan, beste norabidean, begi-bistan dugun Santa Barbara dorrerantz, Guadaluperako norabidean bidea jarraituz. Hesia igarotakoan, bidean jarraituko dugu zuzen. Aurrerago, monolito bat ikusiko dugu, Mendizabalen harria bezala ezagutzen dena. Monolitora iritsi baino lehenago, ikusiko dugu trikuharria markatzen duen mugarria. **Jaizkibel III** trikuharrira iritsi gara. Berrero ere, gure inguruari begiratuko diogu eta trikuharria non kokatu zuten ikusi dezakegu.

Bidea zuzen jarraitzen badugu Guadaluperantz, handik 350 metrotara gutxi gora behera, **Jaizkibel IV** trikuharria aurkituko dugu.

Gure megalitoen bila jarraitzeko Jaizkibelgo mendilerroa utzi beharko dugu eta beherantz abiatuko gara, itsasorantz. APPak ederki gidatuko gaitu berriro Jaizkibel II eta Jaizkibel V harrespilak aurki ditzagun. Harrespilak eraikitzeke ohitura, trikuharriena baina beranduago iritsi zen hona, beraz, trikuharriekin neolito edo brontze aroaz ari baginen, harrespilekin burdin aroaz ari gara. Hemendik aurrera, gorputzak zuzenean lurrean ehortzi

beharrean (trikuharriaren barruan), lehenengo erre egingo dituzte eta ondoren harriekin osaturiko zirkuluaren barruan ehortzi.

Kromletx hauek, ikusi ditugun trikuharrien antzera, tokiko hareharria erabilita eraiki ziren. Mendi-lepo batean kokaturik daude, itsas mailarekiko 375 m-ko altueran eta elkarrengandik nahiko gertu. Ez da erraza **Jaizkibel V** kromletxa atzematea, bai ordea **Jaizkibel II**. Azken hau, hesiz inguratutako eremu batean dago.

Bertaratzen bagara, errez ikusiko dugu kromletxaren harriek osatzen duten borobila.

Eguzkia non dago?

Berrero ere, puntu kardinalekin jolasari ekin diezaiokegu, baina oraingo honetan, eguzkiari erreparatuko diogu. Iparrorratza erabiliaz, kromletxarekiko 4 puntu kardinalak markatuko ditugu, eskura daukagun edozein elementu erabilita (makilak, harriak, hostoak, iratzeak,...gure arropa ere erabili dezakegu inguruan beste ezer topatzen ez badugu). Nahi izanez gero, elementu hauek erabilita hizkia ere idatzi dezakegu puntu bakoitzean: I Iparra, E Ekialdea, H Hegoaldea eta M Mendebaldea. Lau puntuak markatu ditugunean ausnartu araziko diegu: guk iparrorratza erabili dugu puntu hauek kokatzeko, baina harrespil hauek eraiki zituzten gizakiek iparrorratzik ba zuten? Ze erreferentzi erabili zezaketen haien burua kokatzeko? Zerua begiratzeko eskatuko diegu. Zein da zeruan gidari? Eguzkia. Eguzkiaren posizioari esker kokatzen ziren. Egun lainotsu edo euritsuetan aldiz, zuhaitz edo harrietako goroldioari erreparatzen zioten, iparraldera begira dagoen aldea izaten baita hotzena eta hezeena eta beraz, goroldioa sortu ohi den aldea.

Ba al dakite eguzkia non atera eta non sartzten den Hondarribian? Gure etxeko



zein lehiotan ikusten dugu goizetan eguzkia? eta arratsaldetan?

Eguzkia ekialdetik atera eta mendebaldean sartzen da. Horregatik euskaraz, ekialdeari ere sortaldea (eguzkia sortzen den aldea) deitzen diogu eta mendebaldeari sartaldea (eguzkia sartzen den aldea)

Hemendik, antzinako Paradorera itzuliko gara, gure ibilbideari amaiera emateko.

Ikasgelara itzultakoan ikusi dugunari buruz hausnarketa egin dezakegu:

zenbat animalia mota ikusi ditugu?

Ba al zegoen pottokarik?

Zertarako dira bainerak?

BURDIN AROA

Paleolito eta neolito aroan gizakiak harria lantzen bazuen, brontze eta burdin aroan metala landuko du.

Brontze aro eta burdin aro tartean erdialdeko Europatik Euskal Herrira giza talde indoeuroparrak iritsi ziren. Batez ere, Araban eta Nafarroan finkatu ziren baina Gipuzkoan eta Ipar Euskal Herrian ere zenbait gotortutako esparru eraiki zituzten, gainaldetan, leku estrategikoak baitziren inguruko eremuak kontrolatu ahal izateko.

Nabarmen handitu ziren garai honetako herrixkak eta hirigintza antolamendua ere bazeukaten jada. Gehienak gotortuta zeuden eta etxeak lastozko teilatu eta buztinezko hormak zituzten. Gaur egun Gipuzkoa deitzen dugun lurraldean adibidez, 10 herrixka inguru egon zitezkeela pentsatzen da, batzuk

aipatzekotan, Intxurre (Albiztur), Buruntza (Andoain), Basagain (Anoeta), Murumendi (Beasain), Munoaundi (Azkoitia), Moru (Elgoibar) eta Murugain (Arrasate).

Material osagarria:

Hona burdin aroko herrixka haiek nolakoak ziren irudikatzen lagunduko digun esteka: <http://www.suhararkeologia.com/eu/ondare-arkeologikoa/3d-arkeologia/>

Gure lurretatik igaro ziren beste herri eta kultura hauek, eragin nabarmena izan zuten gure artean eta teknika berriak erakutsi zizkiguten. Zeltiar-ei zor diegu burdinaren metalurgia. Burdina, aurretik erabilitako brontzea baino askoz ere eskuragarriagoa eta abantaila gehiagokoa zen eta aurrerapen handia izan zen lanabesak, armak eta bestelako elementuak egin ahal izateko. Guzti honek eragin handia izango du abeltzaintza, nekazaritza, eraikuntza eta gizakiaren beste hainbat jardueretan.

Tresnak izugarri ugaritu ziren: golde hegalak, igitaiak, mota askotako aiztoak, lantzak, ezpatak, iltzeak, giltzak, aliketak. Giza talde hauek ekarri zuten kromletxak eraikitzekeko ohitura. Ordura arteko ehorzketa modua, hildakoak lurperatzeari lotuta bazegoen ere, garai honetan, hildakoen gorpuak errausten hasiko dira, kromletxek osatzen zuten biribilgunearen barruan errauts horiek lurperatzeko.

Ekoizpen ekonomia da aro honetan nagusi baina ehiza, arrantza eta fruitu bilketa bezalako zenbait harrapaketa praktika mantenduko dira elikaduraren osagarri modura.

Arrantzari dagokionez, bai brontzezko zein burdinazko amuak erabiltzen zituztela badakigu, Euskal Herriko zenbait aztarnategietan aurkitutako aztarnak medio. Ziurrenik sareak ere erabiltzen zituzten.

Zeramikaren arloan, garapen garrantzitsua egon zen; tornua erabiltzen hasiko ziren. Txanponak ere garai honetan hasi ziren erabiltzen.

Jarduera: garai hartan txanponak erabiltzen hasi baziren ere, ziurrenik trukea izango zen nagusi. Etxetik traste zaharrak edo erabiltzen ez ditugun gauzak ekarri eta jolastokian azoka txiki bat antola dezakegu, trukean oinarritua. Modu honetan, gauzak lortzeko bide bakarra dirua ez dela landuko dugu.

Hainbat lehengai erabiltzen jarraituko dute jantziak eta oinetakoak egiteko; hala nola, larrua, landare zuntzak, lihozko ehunak, artilea, etab. Jantziak lotzeko, fibula izeneko brontzezko kateorratza erabiltzen zuten. Gizonezkoek, ezpatak eta bestelako burdinazko armak zeramatzen.

Garai honetan ezagutuko ditugu lehenengo burdinazko ezpatadun zaldunak.

BURDIN AROA HONDARRIBIAN: BASKOI HERRIXKA BAT JAIZKIBELN?

Euskal Herrian, Leitzarandik Zuberoara 400 megalito inguru aurkitu dira. Megalito hauen hedapen eremua, baskoien eremuarekin dator bat. Hondarribia beraz, kromletxen eremuan sartuta dago, baskoien esparru barruan eta seguruenik, Jaizkibelen aurkitutako kromletx, harrespil edo mairu-baratzak, haiek eginikoak dira. Baliteke, Jaizkibel mendian baskoien herrixka bat egotea erromatarrak iritsi zirenean. Hala ondorioztatu daiteke Estrabon geografo greziarrak egiten duen garaiko deskribapenean. Honen arabera, herrixka hura Ozeanoko kostaldeko herri baskoietako bat zen, itsasertzean

kokatua. Aipaturiko kromletxek ere, teoria hau berresten dute. Zenbaitek, herrixka hori Guadalupeko gotorlekuaren azpian egon daitekela pentsatzen dute. Hala ere, hipotesiak besterik ez dira, oraingoz ez baita benetako aztarnarik aurkitu.

Edonola ere, kostaldean egoteak batetik eta penintsula eta Europako beste lekuen arteko pasabidea izateak bestetik, kokaleku pribilegiatu bihurtu izan du beti Hondarribia. Garai hartako herrixka baskoia, garrantzi ertainekoa zen, oinarritzko hirigintzaz eratua eta beharbada, gotortua egon zitekeela pentsatzen da.

ZER IKUSI DUZU?

Unitateari amaierari emateko ibilbide guztian Martxela bidelagun izanda zein Frantxiska eta Txantxano erraldoien laguntzarekin ikusi ditugun gauza ezberdinen errepasotxo bat egingo dugu, ardatz kronologikoak dituen marrazkiak lagun. (25. orrialdea)

Esaerak hala dio: “Zer ikusi, hura ikasi”. Ikusitako guztia hartu eta...

ZER IKASI DUZU?

Hutsune bat aurkituko dugu koadernoan bakoitzak zer ikasi duen idatzi ahal izateko.

MATERIAL OSAGARRIA

“Maite ederra” kantuen letra eta doinua:
<https://www.youtube.com/watch?v=3YFiA9nYt3k>

Luberri Ikasgune geologikoa:
<http://www.luberri.org/eu/>



Paramoudren bisita birtuala:
<https://www.360cities.net/image/img-349810-1#237.90,28.50,96.8>

Paramoudrak ezagutu nahi izanez gero ibilbide proposamen bat:
<https://www.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=15883044>

Flyschari buruz gehiago jakin nahi badugu:
<http://geoparkea.com/eu/>

Jaizkibelgo altxorren inguruan gehiago jakin nahi badugu:
<http://www.jaizkibelamaharri.org/sp-home/objetivos/?lang=EU>

Euskal Herrian bizi izan ziren dinosauroen berri gehiago jakin nahi izanez gero:
http://www.aranzadi.eus/wp-content/files_mf/1304951100201104NORAdinosaurioak.pdf

Aitzbitarteko lagunak elkarteak historiaurreko tailerrak:
<https://sites.google.com/site/aitzbitartekolagunak/>

Historiaurreko lanketa tailerrak (Suhar arkeologia):
<https://www.youtube.com/watch?v=XvpuHnfuSHU>

Historiaurrean sua nola egiten zuten ikusi dezakegu honako esteka hauetan:
<https://www.youtube.com/watch?v=uytHzEWNfSg>

<https://www.youtube.com/watch?v=tnGyOj1Hlrw>

<https://www.youtube.com/watch?v=Rb77XcdpyWA>

Esteka honetan trikuharriak nola eraikitzen ziren ikusi ahal izango dugu:
<https://www.youtube.com/watch?v=uiYOaLFSEjY>

Esteka honen laguntzarekin, bidai birtual ederra egin ahal izango duzu Jaizkibelen ditugun megalitoetan zehar:
http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-oiartzun/eu/contenidos/informacion/bb_jaizkibel/eu_bisita/vuelo_jaizkibel.html

Aranzadi Zientzia Elkarteko Gipuzkoako monumentu megalitikoek eta aztarnategien bilatzailea ere lagungarria gerta daiteke Jaizkibelgo trikuharri eta kromletxak kokatzeko:
http://www.aranzadi.eus/carta-megalitica-resultados?terminobusqueda&estacion%5B0%5D=Jaizkibel&tipo%5B0%5D=0&se-cuencia%5B0%5D=T_2&comarca%5B0%5D=M_36&terminomunicipal=Hondarribia&searchsubmit&lang=eu

GPS-arekin megalitoen bila:
 Android:
<https://play.google.com/store/apps/details?id=eu.aking.megalitoak>
 IOS:
<https://itunes.apple.com/us/app/megalitoak/id966161992?mt=8>

Hona burdin aroko herrixka haiek nolakoak ziren irudikatzen lagunduko digun esteka:
<http://www.suhararkeologia.com/eu/ondare-arkeologikoa/3d-arkeologia/>

Europako maparen garapena historian zehar:
<http://www.euratlas.net/history/europe/index.html>

BIBLIOGRAFIA

- Altuna, J.: *Hondarribia historiaurreko garaian*, pp. 9-22. En: *Hondarribiko Historia.*, Hondarribia, Hondarribiko Udala, 2004.
- San Martin, J.: *Jaizkibel mendiko izen zahar batzuk*, pp. 261-271. En: *Aintzinatik gaur egunera*, Hondarribia, Hondarribiko Udala, 2003.
- Cortizo, J. M. (Coord.); Lozano Vidaurreta, Aitor (Coord. téc.): *Jaizkibel Amaharri*, 2013.
- Iriarte, M. J.; Arrizabalaga, A.: *Arkeología 0.1. Los grupos de cazadores-recolectores en la prehistoria de Gipuzkoa*, pp. 240-246, Donostia-San Sebastián, Diputación Foral de Gipuzkoa, 2011.
- Portu Iribarren, F.: *Cueva la de Zezentegui en Fuenterrabía*, pp. 546-549. En: *Hondarribia: Notas históricas y curiosidades*. Hondarribia, Hondarribiko Udala, 2009 (2ª ed.).
- Murua, M.: *Harriek historiak kontzatzten dizkigute*. En: *Gipuzkoako historia ipuinen bidez*, varios autores, Donostia-San Sebastián, Elkar, 2010.
- Murua, M.: *Ekaingo haitzuloan*. En: *Gipuzkoako historia ipuinen bidez*, varios autores, Donostia-San Sebastián, Elkar, 2010.
- Lapitz, J.J.: *Anecdulario Ondarribitarra*, Hondarribia, El Autor, 1975.
- Torres, J.A.; Gutierrez, K.: *Guía geológica del valle de Oiartzun*, Luberrri Oiartzungo Ikasgune Geologikoa, 2006.

ARTIKULUAK

- Etxeberria Balerdi, F.; Garmendia Larrañaga, J.; Arrieta, E. (2013). Ordizia, ciudad educadora. *RES Revista de Educación Social*, 17.
- Goiricelaya, E. (2012). Soñu...el robinsón de Jaizkibel. *Cosas de Alde Zaharra*, 14.
- Álvarez Fernández, E.; Iriarte, M.J.; Arrizabalaga, A. (2010). El abrigo de J3 (Hondarribia, Guipúzcoa): consideraciones de tipo metodológico y primeros resultados sobre los recursos marinos de un conchero de época mesolítica. *Férvedes*, 6, 17-24.
- Conde, E. (2011). Azken dinosauroak Euskal herrian egon ziren. *Nora Aranzadi Zientzia Elkarte*, 26-29.
- Conde, E. (2011). Jaizkibel y el hombre del mesolítico. *Euskal Herria liburuak*, 55, 112-113.
- Ortega, K. (2009). Jaizkibelgo gizona. *Hondarribia, Herri aldizkaria*, 221, 24-25.
- Ortega, K. (2012). Historiaurreko hilobiak Jaizkibelen. *Hondarribia, Herri aldizkaria*, 248, 24-25.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua

